

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Gobernuaren ustez, bigarren modeloa Nafarroako Volkswageni esleitzea foru-ekonomiarako aukera "garrantzitsua" izango da

*Barkos Lehendakariak esan du iragarpen horrek Nafarroa konfiantza eta bermearen ikurra dela erakusten duela argi eta garbi*

Osteguna, 2016.eko ekainak 2

Iragarpen ofizial hori Nafarroako Jauregian arratsaldeko lehen orduan izandako bileran egin da, eta bertan parte hartu dute ere: Garapen Ekonomikorako lehendakariorde Manu Ayerdik, Nafarroako Volkswageneko lehendakari Emilio Saenzek eta SEATEko eta Espainiako Volkswagen Taldeko Gobernuetik era Erakundeekiko Harremanetako lehendakariorde Ramon Paredesek.



Ezkerretik eskuinera, Barkos Lehendakaria, Volkswageneko munduko lehendakariorde Fco. Javier García Sanz eta Nafarroako Volkswageneko lehendakari Emilio Saenz.

Nafarroako Gobernuak Lehendakariak esan du "Volkswagen Taldeak hartutako erabakia foru-ekonomiarako aukera garrantzitsua" dela. Barkosen iritziz, "ilusio handiko une bat bizitzen ari gara; izan ere, bigarren modelo honen esleipena mugarri garrantzitsua da Landabengo lantegirako, enpresa laguntzaile eta hornitzaile guztietarako eta Nafarroa guztirako".

"Modelo berri honen fabrikazioak aberastasuna eta kalitatezko enplegua ekarriko ditu, gure Foru Komunitaterako estrategikoa den sektore batean", azaldu du Barkosek.

Nafarroako  
Lehendakariaren ustez, puntu  
honetara iritsi ahal izan da

